

Funtsezko elkarteak

Gure gozotegi proiektuak aurrera egiteko behar dituen bazkide eta hornitzaile nagusiak gozogilea edo sukaldaria, hornitzaile nagusiak, diseinatzaile/marketin arduraduna eta salmenta arduraduna dira.

Gozogileak produktuak sortzeko gaitasuna ematen du eta kalitate handiko gozogintza eskaintzen du. Horrek bezeroak erakartzen laguntzen du.

Hornitzaile nagusiek osagai fresko eta kalitatezkoak eskaintzen dituzte. Horrek hornikuntza etengabea eta produktuen kalitatea bermatzen du.

Diseinatzaile/marketin arduradunak webgunea eta produktuen diseinu pertsonalizatuak sortzen ditu. Horrela, marka ikusgarriagoa bihurtzen da eta bezero berriak erakartzen dira.

Salmenta arduradunak bezeroekin komunikazioa kudeatzen du eta produktuak modu eraginkorrean saltzen ditu.

Bazkide hauek guztiak funtsezkoak dira guretzat. Negozio-eredua funtzionatzeko, baliabideak eskuratzeko, arriskuak murrizteko eta proiektua arrakastaz aurrera eramateko.